

# Zertan datza transfeminismo izeneko hori



Josebe  
Iturrioz,  
*Itu*

**T**ransfeminismoaz ari garela, pluralean hitz egin behar dugu feminismoari buruz. Ezin dugu hitz egin transfeminismo bakar bati buruz, kontuan izan behar baitugu aniztasunaz hitz egin behar dugula, ez dagoelako transfeminismoa ulertzeko era bakarra. Transfeminismoek gai berriak proposatzen dituzte. Arazo zaharren inguruko ikuspegi berria ematen dute, eta aldi berean erreminta berriak eskaintzen dituzte. Feminismoak eta filosofiak proposatzen dituzten arazoengatik erantzunak emateko erreminta berria eta erabilgarria da transfeminismoa.

Debatearen erdigunean nortasunaren ikusmolde bat dago. Zer da nortasuna/identitatea? Identitatea da gauzak zer diren definitzeko aukeragun erreminta bat. Horri atxikiak sexu eta generoarekin lotutako galderak daude: Zer da gizon bat? Zer da emakume bat? Zer da gizaki bat? Zer da animalia bat? Azken finean identitate horiek erabiltzen ditugu eta horien inguruko erantzunak emateko baliagarria da.

Transfeminismoak badu filosofiaren edo pentsamenduaren historian egon den gatazka batekin harremana, eta modernitate/postmodernitatearen arteko eztabaidarekin badu zer ikusia. Modernitateak erabiltzen dituen kategoria batzuk transfeminismoan ez dira erabilgarriak arazoak sortzen dituztelako, eta postmodernitatean ematen diren beste proposamen batzuk hartzen ditugu. Modernitateak emantzipazioaren diskurtsoa eskaini zigun: arrazionalak ziren gizon ilustratuek esaten zuten subjektuek arrazoia daukaten heinean aske izateko aukera daukatela, edo behintzat subjektu izateko eta gizartearen parte hartzeko eta erabakitzeko aukera. Baina ilustratuen abstrakzioaren atzean gorputz normalizatu bat zegoen, gorputz hegemoniko zehatza: gizon zuria eta heterosexuala. Feminismoak kritika egin zion subjektu horri eta emakumea subjektu gisa sortu zen.

Batzuek pentsatzen dute emakumeak txertatzearekin nahikoa dela, baina emakumeak txertatzean konturatu gara kategoria gehiago sartu behar ditugula, eta zer gertatu zaigu? Subjektu ilustratu horri kategoria gehiago sartu dizkiogunean apurtu egin zaigu. Hortaz, orain mugimendu feministaren subjektua ez da soilik emakumea, eta feminista batzuentzat gatazka handia ekarri du kontu honek. Emakume kategoria ez da desagertzen, baina orain esan

daiteke feminismoaren subjektuak gorputz zapalduak, gorputz baztertuak, gorputz arrazializatuak, gorputz baliaezinak direla. Horrelako gorputzak egon badaude, generoak ere zeharkatuak daude eta mugimendu feministaren subjektu edota aliatu izan daitezke.

Transfeminismoaren etimologia edo transfeminismoaren atzean dagoena queer hitza da: ingelesez maritxua, marikoia, arraroa, gorputz ez-normalei botatzen zaien iraina. Queer mugimenduaren edo transfeminismoaren oinarrian hainbat subjektu daude, horien artean maritxuak, lesbianak, transexualak, transgeneroak, trabestiak,...

Simone de Beauvoirrek badu oso esaldi famatua: emakumea ez dela emakume jaiotzen baizik eta emakume egin egiten dela. Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da, heziketak eta gizarteak sortu edo eraikitzen duten zerbait da emakumea. Simone de Beauvoirrek pentsatzen zuen bazegoela gorputz biologiko bat eta gorputz biologikoaren gainean eraikitzen dela emakume hori. Zentzu horretan Monique Wittig aktibista lesbianak «Pentsamendu heterosexuala» liburua idatzi zuenean, esaldi probokatzailerik bota zuen: «Lesbiana bat ez da emakume bat». Lesbiana bat ez bada gizon batekin ezkontzen, ez baditu bere umeak erditzen, ez badu hori guztia egiten ez da emakume bat, horra hor Wittigek adierazi nahi zuena.

Angela Davisek «Genero, clase y raza» izenburuko liburua idatzi zuen, eta liburu horretan oso ondo azaltzen du intersektionalitatearen kontzeptua. Ez dago identitate bakarra, ezinezkoa da identitate bakarra egotea, ezinezkoa da feminismoan subjektu bakarra egotea eta emakume bat izatea. Emakume asko daude subjektuaren azpian eta agian maritxuak ere badira mugimendu feministaren subjektuak, heteroarautik kanpo egon nahi duen gizon bat ere mugimendu feministaren subjektu izan daiteke, transexualak mugimendu feministaren subjektu izan daitezke.

Transfeminismoan «performance» kontzeptuak garrantzi handia dauka. Judith Butlerrek «El genero en disputa» liburua idatzi zuen eta arrakastatsua izan zen oso, «performance» kontzeptua filosofikoki eta politikoki erabili zuelako. Hizkuntza ez da mundu abstraktu batean sortzen, testuinguruetan lotu egiten da eta errealitatea sortu egiten

**«Ez dugulako generoa irakurtzen emakume arazo bezala, baizik eta zeharkako ardatz bezala, leku guztietan txertatzen den ardatz bezala. Transgresorea, erabat irreberentea den mugimendua delako eta transmugakidea, transformatzailea, iraultzailea.»**



Laverne Cox\* se convirtió en la primera persona transexual en aparecer en la portada de Time. La revista tuvo que hacer frente a numerosas críticas tras pasar por alto a la actriz cuando elaboró su lista de las 100 personas más influyentes, pese a que Laverne lideró las votaciones. La publicación reparó el error y Cox terminó siendo portada de la revista

\*Es activista en defensa de los derechos de las personas transgénero y transexuales

du. Butlerrek honakoa esan zuen: «Generoa eta generoa sortzen duten esaldiak performatiboak dira, ez dira deskriptiboak». Hizkuntza performatiboa da. Butler konturatu zen feminitatea errepresentazio bat zela, performance bat zela, antzerki bat. Beraz, generoak gorputzaren gainean inskribatu egiten dira. Azken finean, zein da Butlerren proposamena? Sexua bera eraikia dela guk banatutako sexuen eta generoen artean. Gorputzak eraiki egiten dira eta esanahiez hornitu egiten dira.

Transfeminismoak irain gisa erabiltzen zen queer hitza hartu zuen eta hitz horretaz jabetuta, esanahi berriez hornitu egin zuen. Stonewallen egon ziren maritxu, lesbiana eta trabesti horiek mugimendu lotsagabe bat sortu zuten, irainean oinarritutako mugimendu bat, eta harrez geroztik, aliantza ezberdinak egin dira gorputz normatiboetatik at sortu edo definitzen garen gorputzen artean. Oinarri teoriko ugari dituzten aliantzak sortzen dira, baina baita praktikak ere. Modernitatean erabili ditugun kategoria finkoak, subjektu finkoak (emakumezkoak, immigranteak, lesbianak,...) desagertzen dira,... Horiek guztiak mugak apurtu egiten dituzte elkarlanean aritzeko.

### **Zeintzuk dira transfeminismoak mahai gainean jartzen dituen gai politikoak?**

1.-Transpolitika: Transfeminismoak ez du transexualitateaz soilik hitz egiten, oso garrantzitsua da despatologizazioaren mugimendua. Hainbat talde eta aktibisten arteko aliantza sortu zen lelo baten inguruan: «Ez gizon, ez emakume, binarismoak gaixotzen gaitu». Gorputza ez dago gaixo, gizartea da gaixo dagoena, gizartea da sexu eta generoaren inguruko balio batzuk sortzen dituen, genitalei atxikiak.

2.- Intersexualen errealitatea: Intersexualitatearen kontzeptuak binomio sexualarekin bukatu egiten du. In-

tersexualak hermafrodita gisa izendatzen ditugun gorputzak dira, hau da, jaiotzean genitalitate argia ez dutenak.

3.- Post-pornografia: Pornografia hegemonikoaren diskurtso kritikoa beharrezkoa da. Post-pornografia pornografia hegemonikoarekin kritikoa den pornografia da.

4.- Lan sexuala aldarrikatzea: Mugimendu feminista abolizionisten eta erregulazionisten arteko debate amaigabea aritu da. Orain transfeminismoak binomio horiek apurtu egin ditu: orain ezin da prostituzioa abolitu, ezin dugu erregulaziorik egin prostitutarik gabe. Beraz, helburua da putak feministak izatea, hau da, gorputz horiei, langile sexualei gure asanbladetan eta taldeetan sarrera ematea. Kapitalismoan de-

nok gure gorputzak saltzen baditugu, zergatik pentsatu behar dugu langile sexualek haien gorputzak besteok baino gehiago saltzen dituztela?

Donostian izan genituen jardunaldietan batu egin ginen: transexualak, langile sexualak, pornografia egiten dutenak, feminista klasikoak, Latinoamerikatik datozen lesbiana beltzak,... eta manifestu bat idatzi genuen: «Matxinada transfeministarako Manifestua». Granadako jardunaldietan transfeminismoa hitzaren inguruan gehiago lotu ginen, bertan eta leku guztietan manifestua irakurri genuen eta jende ugari sinatu zuen. Feminista askorentzat, Granadako jardunaldiak identitatearen ingurukoak izan ziren, debate horrek protagonismo handia izan zuelako. Orduan aliantza bat sortu zen aktibista, feminista, trans, bollera eta emigranteen artean. Eta ezaugarri nagusi gisa, zeharkakotasuna. Zergatik da zeharkako aliantza? Ez dugulako generoa irakurtzen emakume arazo bezala, baizik eta zeharkako ardatz bezala, leku guztietan txertatzen den ardatz bezala. Transgresorea, erabat irreberentea den mugimendua delako eta transmugakidea, transformatzailea, iraultzailea. Mugimendu transfeministak praktika politikoa martxan jarri du, oraingo aktibismoa orain egiten ari diren ekintzen bidez antolatzen da. ▼

**Josebe Iturrioz:** Urte askotan Medeak-eko Itu izan da. Gazte-gaztetan hasi zen feminismoaren inguruan mugitzen; 8 urte ibili zen Plazandrok taldean, eta ondoren beste kide batzuekin Medeak sortu zuen, lesbianen talde transfeminista da. Urte luzez Medeak Drag King lantegiak eman zituen, eta «Trabesti bolloen» kultura ere zabaldu du. Hortaz, askorentzat Itu Pepo edo Borja ere bada. Filosofian lizentziatu zen eta doktoretzako bi ikasturte egin zituen. EHUko Berdintasunerako eragile Masterra egin zuen, eta 7 urtez berdintasunerako teknikari egin du lan Tolosan. Horren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Zuzendaritzan aholkatu du 2 urtez